

Basauri, 2019ko martxoaren 1a

«AGEING RESEARCH» DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO GERONTOLOGIAKO TALDE IKERTZAILEAREN ETA BASAURIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMEN ESPEZIFIKOA, «BASAURI ADINEKOEKIN ATSEGINA / BASAURI AMIGABLE CON LAS PERSONAS MAYORES» PROIEKTUAREN EKINTZA-PLANA EZARTZEKO

Alde batean, Deustuko Unibertsitatearen ordezkari gisa, José María Guibert Ucín S.J. jauna, Unibertsitateko errektorea (Unibertsitatearen IFK: R4868004E; Bilbon du egoitza erakundeak).

Beste aldean, Basauriko Udalaren ordezkari gisa, bertako alkate den Andoni Busquet Elorrieta, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua eskuitutako eskumenak egikaritzen (Udalaren IFK: P4809500D).

Hitzarmen hau sinatzeko gaitasuna aitortzen diote alderdiek elkarri, eta zera

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA.-

«Ageing Research» Deustuko Unibertsitateko Gerontologiako Talde Ikertzailea Basauriko Udalarekin lankidetzan aritu dela, «Basauri adinekoekin atsegina / Basauri amigable con las personas mayores» proiektuan. Herriko adinekoekin eta teknikariekin batera ikertzeko eta haiek ere parte hartzeko proiektu gisa diseinatu zen egitasmoa, eta, orain arte, adinekoek osatutako Talde Eragilea sortu da, «atsegintasun» diagnostikoa egin da, eta Plana ezarri ahal izateko Ekintza-plana diseinatu da.

Deustuko Unibertsitateak, bere aldetik, interesa agertu du Basaurin Ekintza-plana ezartzen laguntzeko, bai eta ezarpen horri lotutako ikerketa sozialak egiteko ere.

BIGARRENA.-

Basauriko Udalak zahartze aktiboko prozesuak sustatu nahi ditu udalerrian eta herritarren artean. Horren harira, «Adinekoentzako hiri atseginak – Age friendly cities» proiektuarekin konprometituta jarraitu nahi du, eta «atsegintasuna» hobetzeko Ekintza-plana ezarri.

Era berean, Udalak nahi du Deustuko Unibertsitateak lagun dezala herrian Ekintza-plana garatzen, eta plan horren garapenari lotutako ikerketa sozialak egin ditzala.

HIRUGARRENA.-

Alderdi biek lankidetzan aritu nahi dute, proiektu hau garatu eta kudeatzen.

Hori guztia dela eta, Hitzarmen hau sinatzen dute, honako klausula hauei jarraituta:

KLAUSULAK:

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA.

Lankidetzaz hitzarmen honen xedea da Ekintza-planaren ezarpena garatzea eta Basaurik adinekoentzat duen «atsegintasun» maila hobetzea, Osasunaren Mundu Erakundeak «Adinekoentzako hiri atseginak – Age friendly cities» proiekturako proposatutako ereduari jarraituta.

Aurkezpenean jaso denez, erakunde biek dute interesa Ekintza-planaren garapenari lotutako ikerketa sozialak egiteko. Ordea, Hitzarmen honek ez du jasotzen horren inguruko jarduketa zehatzik: aukera egongo da ikerketa horiek egiteko, baldin eta horretarako baldintza zehatzak hitzartzen badira Jarraipen Batzordean (Hitzarmenaren laugarren klausula); eta, betiere, Udalaren finantziazio osagarria behar izanez gero, Udalak behar besteko kreditua baldin badauka Jarraipen Batzordean jarduketak adostu aurretik.

BIGARRENA.- TALDE IKERTZAILEA ETA PROIEKTUA NON EGINGO DEN.

Deustuko Unibertsitateak «Ageing Research» talde ikertzailea jarriko du Basauriko Udalaren esku, udalerrian proiektua aurrera eramateko. Proiektuan parte hartuko dute talde horretako irakasle ikertzaile bik, gutxienez. Haiekin batera, taldeari atxikitako ikertzaile bat ere ariko da, astean zortzi orduko batez besteko arduraldiarekin.

HIRUGARRENA.- ALDERDIEN KONPROMISOA (EDO PROIEKTUA GARATZEA).

Parte-hartzaile bakoitzak konpromisoa hartzen du esleitutako eginkizunak aurrera eramateko eta lankidetzan aritzeko, proiektua Udalak onetsitako Ekintza-planaren arabera garatu dadin. Horren harira, alderdi bakoitzak bere gain hartzen ditu Planean jasotako eginkizunak eta erantzukizunak. Hona hemen:

Deustuko Unibertsitateko talde ikertzaileak:

- Proiektuaren dinamizazio globala egingo du, fase guztietan zehar. Proiektuaren pixkanakako garapena gidatuko du. Eta Basauriko eragileak eta adinekoak apurka-apurka ahalduntzeko beharrezko teknologia-transferentzia hornituko du.

- Dinamizazio-prozesuak eskatzen du Deustuko Unibertsitateko talde ikertzaileari atxikitako teknikaria astean zortzi orduz aritzea batez bestean, Basaurin aurretiaz finkatutako tokian. Era berean, eskatzen du talde ikertzaileko irakasle ikertzaile bi, gutxienez, aritzea gainbegiratze eta aholkularitza lanetan, urtean 80 bat orduko arduraldi globalarekin.
- Proiektuari lotutako bulego teknikoaren, talde eragilearen eta lantaldeen bilerak eta txostenak egiten lagunduko du.
- Gainera, parte hartuko du proiektua garatu ahala sortzen doazen ekitaldietan (bilerak herriko eragileekin edo Jarraipen Batzordearekin; hitzaldi publikoak; eta abar). Bilera horietako batzuk Deustuko Unibertsitatean egin ahalko dira.
- Oro har, proiektua egokiro garatzeko giza baliabideak hornitzeko konpromisoa hartzen du Deustuko Unibertsitateak.

Basauriko Udalak:

- Deustuko Unibertsitateari 11.840 euroko ekarpen ekonomikoa egingo dio (zergak eta tasak barne), Talde Ikertzaileak egingo dituen lanen truke. Gainera, Udalak konpromisoa hartzen du proiektua garatzeko beste giza baliabide eta baliabide material batzuk hornitzeko. Honako hauek, hain zuzen ere:
- Proiekturako beharrezkoak diren baliabide pertsonalak: proiektua aurrera eramateko izendatutako udal teknikariak (nagusiki, gizarte-zerbitzuetaoak). Deustuko Unibertsitateak proiektuari eskainitakoa beste denbora eskainiko diote udal teknikariek ere. Proiektua garatu ahala, une jakin batzuetan beste alorretako udal teknikariek ere hartu beharko dute parte, beren lan-eremu espezifiko zereginak aurrera eramateko (ordu-kopuru mugatuarekin, betiere).
- Tokiko eragilearen zeregina funtsezkoa izango da, batetik, proiektuaren talde eragilea osatuko duten adinekoen jarraipena eta dinamizazioa egiteko; eta, bestetik, beste udal teknikariek eta herriko elkarteekin bitartekaritza-lanak egiteko.
- Udalak hornituko ditu proiekturako beharrezkoak diren baliabide materialak, besteak beste, honako hauek: biltzeko eta lan egiteko tokia; proiektua lantzeko eta haren zabalkundea egiteko paper-gauzak; talde eragileak eta bulego teknikoak lan egiteko web baliabideak eta sostengu informatikoa... Eta, fase honetan, bereziki, Ekintza-planeari aurreikusitako jarduketak guztiak garatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak.

LAUGARRENA.– JARRAIPEN-BATZORDEA.

Jarraipen Batzordea eratuko dute Deustuko Unibertsitateak eta Basauriko Udalak, Hitzarmenaren exekuzioaren jarraipen eta ebaluazioa egiteko. Zehazkiago, honako zeregin hauek izango ditu Jarraipen Batzorde horrek:

- a) Hitzarmen honen interpretazioaren eta aplikazioaren inguruan sor daitezkeen zalantzak ebaztea.
- b) Hitzarmen honi erantsitako proiektuaren exekuzioa ebaluatzea (lehenengo urtea, Ekintza-planaren egutegian).
- c) Hitzarmenak finkatutako konpromisoak hobeto gauzatzeko eta parte-hartzaileen koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea.

Jarraipen Batzordea osatuko dute «Ageing Research» Gerontologiako talde ikertzailearen arduradunak eta Basauriko Udaleko teknikari batek. Hiru hilean behin batuko dira. Bilerak birtualak ere izan ahalko dira. Ezohiko bilerak ere egin ahalko dituzte, batzordekideek hala adosten dutenean.

Proiektua amaitu eta gero, Ekintza-planaren exekuzioari buruzko urteko jardueren memoria izango du Jarraipen Batzordeak. Memoria hori dagozkion zentroetara bidali beharko da, bederatzigarren klausulan jakinarazpenetarako emandako helbidera.

BOSGARRENA.- EMAITZEN ZABALKUNDEA EGITEA.

Printzipio orokor gisa, alderdiek hitzartzen dute ezin dela zabaltu informaziorik, baldin eta hala egiteak kaltetzen baldin badu lankidetzaren bitartez lortutako ezagutzen babesa. Beraz, ezingo da informaziorik zabaltu aipatutako ezagutzatik eratorritako jabetza industrial eta intelektualeko eskubideen bitartez.

Horrela, bada, lankidetzaren gaineko informazioa zabaltu nahi duen alderdiak beste alderdiari bidali beharko dio argitaratu nahi duen dokumentu-zatia. Berau jaso eta hogeita hamar (30) eguneko epea izango du alderdi horrek egoki iritzitako eragozpenak eta iruzkinak egiteko.

abalkundea edo argitaratzea ekidin nahi izanez gero, horren adierazpenarekin batera honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Dokumentua aldatzeko eskabidea —bereziki, bertan jasotako informazioa argitaratu edo zabaltzearen ondorioz, kaltetuak suertatu ahal badira lankidetzaren ondoriozko ezagutzak jabetza intelektual edo industrialeko eskubideen bidez ustiatzeko aukerak; edota hirugarrenen interes zilegiak kaltetu ahal badira—.
- Jabetza intelektualeko eskubideen bidez babes daitekeen informazioa zabaltzea edo argitaratzea atzeratzeko errekerimendua.

Isiltasuna egonez gero, ulertuko da zabalkundea egiteko isilbidezko baimena ematen dela.

Argitaratzerakoan, lanaren egileak aipatu beharko dira beti. Edozelan ere, emaitzen zabalkundea egiten denean, lankidetzaren honen aipamen berezia ere egingo da.

Proiektua garatzen parte hartzen duten herriko eragile guztiei aplikatzen zaie klausula hau.

SEIGARRENA.- KONFIDENTZIALITASUNA ETA DATUEN BABESA.

Konfidentzialak dira proiektua gauzatzeari buruzko informazio guztiak, proiektua baino lehenagokoak ala ostekoak, emandakoak ala jasotakoak. Edozelan ere, informazioa hirugarren bati emango balitzaio, hark ere isilpekotasuna eta konfidentzialtasuna gordetzeko konpromisoa hartuko du idatziz, hemen adierazitako baldintzetan.

Proiektua egitearen ondorioz jakingo dituzten izaera pertsonaleko datuen konfidentzialtasuna bermatzeko neurri egokiak hartu behar dituzte alderdi eta laguntzaile guztiek; eta baimenik ez duten hirugarrenek datu horietarako sarbidea izatea galarazi beharko dute.

Kontratu hau egokiro aplikatzeko, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta berau garatzeko edo osatzeko xedapenek babestutako izaera pertsonaleko datuetara sartu ahalko dira alderdi biak, noiz edo noiz. Hartara, konpromisoa hartzen dute datuok egokiro erabili eta kudeatzeko, Hitzarmen hau aurrera eramateko beharrezko jarduketan arabera eta unean-unean emandako jarraibideen arabera.

Era berean, sekretu profesionala gordetzeko obligazioa hartzen dute alderdiek, hain zuzen ere, datu pertsonalei lotuta jaso, kudeatu edota artikulatzeko jaso dezaketen informazioari buruz. Eta honako konpromiso hauek ere hartzen dituzte: datu horiek hirugarrenei ez jakinaraztea; alderdi bien arteko kontratu-harremana amaitzen denean, datuok suntsitu, baliogabetu eta itzultzea; eta indarreko legearekin bat datozen segurtasun-neurriak aplikatzea.

ZAZPIGARRENA.- INDARRALDIA ETA LUZAPENA.

Hitzarmen hau indarrean egongo da aurreikusitako lana burutu arte (urtebete, Hitzarmena sinatzen denetik). Dena dela, Hitzarmena espresuki berritu ahalko da, baldin eta alderdi batek besteari proposamen hori egiten badio bi hile lehenago, gutxienez, eta besteak berau espresuki onartzen badu.

Alderdiek dokumentu hau aldatu ahal izango dute edozein unetan, biak ados badaude. Era berean, bi alderdietako edozeinek salatu ahalko du Hitzarmena. Hala egiteko, beste alderdiari idatziz jakinarazi beharko dio, Hitzarmena amaitutzat emango duen data baino hilabete lehenago. Kasua bata zein bestea izan, hasita eta gauzatze bidean dauden zereginak burutu egin beharko dira.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA HUTSALTZEKO ARRAZOIAK.

Hitzarmen hau hutsalduko da:

1. Alderdiek hala adosten badute.
2. Alderdiren batek Hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, eta ez-betetze hori 30 eguneko epean konpontzen ez bada (ez-betetzeari buruzko jakinarazpen frogagarriaren datatik zenbatzen hasita).

3. Hitzarmenaren xedea ezin bada lortu.

Hitzarmena hutsaldu arren, indarrean egongo dira konfidentzialtasunari buruzko klausulak, eta emaitzen jabetza eta ustiapenari buruzkoak ere bai.

Hitzarmena behar baino lehenago hutsalduz gero, lankidetzaren eten egingo da. Unibertsitateko ikertzaileak jada hasi badira esku hartzen Udalak zehaztutako tokietan, egindako lanari dagokion ordaindu beharko dio Basauriko Udalak Deustuko Unibertsitateari.

BEDERATZIGARENA.- JAKINARAZPENETARAKO KONTAKTUAK.

Hitzarmen honi lotutako jakinarazpenetarako, Deustuko Unibertsitatearen aldetik Pedro P. Fernández de Larrinoa (pedro.larrinoa@deusto.es) izango da solaskidea, eta jakinarazpenetarako helbidea, berriz, haxe: Unibertsitatearen etorbidea 24, 48007 Bilbo (Bizkaia).

Basauriko Udalaren aldetik, berriz, Amaia Borde Garatea izango da harremanetarako mintzakidea (aborde@basauri.eus), eta haxe izango da jakinarazpenetarako helbidea: Bidearte 10, Basauri (Bizkaia).

HAMARGARRENA.- ORDAINTZEKO MODUA.

Hitzartutako zenbatekoaren erdia ordainduko da Hitzarmenaren indarreko urtearen ekainean. Gainerakoa, berriz, urte horretako abenduan pagatuko da.

HAMAIKAGARRENA.- ARAUTZEA ETA JURISDIKZIOA.

Alderdi biek adosten dute beren harremanak Hitzarmen honen edukia arautzen dituela, bakar-bakarrik. Hitzarmen hau aldatu edo zuzentzeko, alderdien idatzizko adostasuna beharko da. Bestalde, Hitzarmenari buruz sor daitekeen edozein desadostasun modu adiskidetsuan konpontzeko konpromisoa hartzen dute alderdiek.

Sor daitekeen gatazka justizia-epaitegietara eraman aurretik konponbiderik adosten ez badute, bitartekaritzara jotzea adosten dute alderdi biek, arazoa bideratzen saiatzeko. Horretarako, hiru bitartekari izendatuko dituzte: alderdi bakoitzak bana izendatuko du, eta hirugarrena biek adostuko dute. Gatazka den kasuetan, bitartekariak alderdiei entzun, eta proposamena egingo dute.

Bitartekaritzaren bitartez ere ez bada posible irtenbide adiskidetsua lortzea, eta, ondorioz, epaitegietara joan behar badute, alderdiek adosten dute legokiekeen beste edozein forori uko egin, eta Bilboko epaitegietako administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aginduetara jartzea.

Adierazitako guztiarekin bat datozela agertzeko, alderdiek Hitzarmen honen kopia bi sinatzen dituzte, lehen adierazitako tokian eta datan.

Deustuko Unibertsitatea

Basauriko Udala

Sin.: José María Guibert Ucín S.J.

Sin.: Andoni Busquet Elorrieta